



Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Lehen Hezkuntzako graduko 1. mailako ikasleen Hezkuntza Topaketa

EUSKARAZ JOLASTEN LEHEN HEZKUNTZAN

2024ko abenduaren 3a, 15:00-19:00

**Nola eralda dezakegu jolasgarria, aktiboa, anitza,
kulturalki aberatsa eta euskaldunagoa izateko?**

Galdera honetatik abiatu genuen ikasturte hau, Lehen Hezkuntzako graduko 1. mailako ikasleekin.

Urtero bezala, *Komunikazio Gaitasunaren Garapena* / irakasgaiak antolatuta ditugu, ikasleak eremu akademiko-zientifikoan murgiltzeko eta hezkuntzaren eremu profesionala ezagutzen hasteko.

Aurtengo proiektuan, jolasak eta jokoak hartu ditugu aitzakia gisa ahozkoasuna lantzeko, hezkuntzaz gehiago jakiteko, gure jakintzak aktibatzeke eta iturri bibliografikoak erabiltzen ikasteko.

Antolaketa kontuengatik eta egun atsegina pasatzeko, egitaraua bitan banatu dugu eta jarduera bakoitza BI ALDIZ gauzatuko dugu. Horrela, erosoago egongo gara hitzaldietan eta poster aurkezpenetan.

Topaketa irekia da. Edonork har dezake parte, hitzaldietara etorri, posterrak bisitatu...

Egitaraua

2.5 gela: HITZALDIAK (bi txanda)

15:00-15:45 eta 16:00-16:45 *Jolastea eta ikastea bidegurutzean*. Nora Salbotx.

17:00-17:45 eta 18:00-18:45 *Aneren abenturak. Aisialdian euskaraz bizi eta jolas*. Mitxel Elortza.

3.4 eta 2.4 gelak: POSTER ERAKUSKETA AZALDUA

LEHEN TXANDA: 15:00-16:50

1. JOKOAK ETA LEHIAKORTASUNA
2. ANTZERKI ETA DRAMA JOLASAK
3. JOLAS SINBOLIKOAK
4. SUGEAK, AZERIAK ETA OILOAK
5. MAHAI-JOKOAK
6. ADINARI EGOKITUTAKO JOLASAK
7. MAHAI-JOKOAK
8. HERRI-JOLASAK
9. KANPOAN EGITEN DIREN JOLASAK
10. LUDOPATIA

BIGARREN TXANDA: 17:00-18:50

1. GENERO BERDINTASUNA JOLASETAN
2. MUSIKARI LOTUTAKO JOLASAK
3. TALDEKAKO JOLAS MOTOREAK
4. KARTA-JOKOAK
5. JOLAS PSIKOMOTORRAK
6. ESKU JOLASAK
7. ZENTZUMEN JOLASAK
8. ERRITMO JOLASAK
9. JOLAS PSIKOMOTORRAK

Hizlariet buruz

Nora Salbotx Alegria (Iruñea, 1973).



Magisteritzan eta Psikopedagogian graduatua, Landa Eremuko Hezkuntzan graduondokoa eta Hezkuntza eta Komunikazioan masterra.

Mondragon Unibertsitatean eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan irakasle aritutakoa, gaur egun Amaiurko eskolako zuzendaritzan eta Baztango herrietako eskolen koordinazio lanetan ari da.

Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza lantaldeko zuzendarikide, Hik Hasiko aholkulari, Herri Hezitzaileen sareen lagun, [Hik Hasi](#) eta [Argia](#) aldizkarietako zein [Guraso.eus](#) eta [Oinherriren](#) web agerkarietako kolaboratzaile.

Irakasleen formakuntzan aritzen da hizkuntza idatziaren didaktikan eta landa eremuko hezkuntzaren ildoak jorratuz. “*Askatu edo Moztu, euskal hezkuntzagintzaren erronka zahar eta berriak*” (Iratzar-Txalaparta, 2021) hezkuntzari buruzko entsegu politikoaren egilea. bell hooks-en “*Transgresioa irakasgai. Hezkuntza askatasunaren praktika gisa*” liburuaren euskarazko edizioaren hitzaurrearen egilea (Katakarak, 2023). Koldo Rabadanen “*Superbotereak. 10 urrats eskola eraldatze bidean*” liburuaren hitzaurrearen egilea (Argia, 2024).

Euskal Hezkuntzagintzan militante.

Mitxel Elortza Exea (Gasteiz, 1988).



Irakasle eta idazlea.

Musika irakasle ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitate Publikoan.

Irakaskuntza munduan hurrekin lan egiteak euren beharrianak hobeto ezagutzeko aukera eman dio, eta irakurketa-idazketaren irakaskuntzan buru belarri ibiltzeak haur literaturako ipuinak idazten hastera animatu zuen.

Horrez gain, Zabalganako Euskara Taldea (ZET) Gasteizko auzoko euskara taldean eta eskolako euskara taldean euskararen alde lanean dabil.

Antolatzaileak

UPV/EHUko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Lehen Hezkuntzako graduoko 1. mailako ikasleak.
Ainhoa Ezeiza irakaslea (*Komunikazio Gaitasunaren Garapena Lehen Hezkuntzan I* irakasgaiaren baitan).
Harremanetarako: ainhoa.ezeiza@ehu.eus